



ERREGISTRATUTAKO LANGABEZI DATUEK ARAZO HONEN BENETAKO TAMAINA EZKUTATZEN DUTE.

2004 urtean INEM-en erregistratutako langabezi datuen balorazioa.

INEM-ek (gaur Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa) argitaratutako datuen arabera 2004 urtean batz best 89.472 pertsona langabetu erregistratu ziren institutu honek Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan dituen bulegoetan. Langabezi zifra ofizial honen barne %59 emakumeak ziren eta %41 gizonezkoak, beraz, oraindik hauek osatzen dute langabezi talde ugariena. Horrek adierazten du 2004 urtean batz best 1.713 langabetu gutxiago erregistratu direla aurreko urtearekin konparatuz.

Baina datu hauez gain, INEM-ek, lanpostu bat eskatzen duten pertsonen artean "langabetu kontsideratzen ez dituenen" buruzko datuak ere ematen ditu. Informazio horren arabera, Hego Euskal Herrian INEM-en lanpostu baten eskatzaile moduan izena emandako pertsonen %42,3 ez dago *erregistratutako langabeziaren* lista ofizialetan barneraturik, hau da, 65.600 pertsona inguru.

HEGO EUSKAL HERRIA - 2004	%	%
Eskariak guztira	100%	
Langabezia	57,7%	
Langabetu kontsideratu gabeak	42,3%	100%
Geldiarazitako eskariak	5,3%	12,4%
Gizarte lankidetzak	0,0%	0,0%
Jubilatuak	1,9%	4,4%
Enpleguaniztasuna	0,7%	1,7%
Enplegu hobia	7,6%	18,0%
Enplegu koiunturala	0,6%	1,4%
20 ordu baino gutxiagoko lanaldia	3,6%	8,5%
Ikasleak	1,6%	3,8%
Prestazioekin bateragarriak	6,6%	15,5%
T.E.A.S.	0,0%	0,0%
Onartu gabeko lan-txertatze eskaintzak	1,4%	3,4%
Beste arrazoiak	13,1%	30,9%

Iturria: INEM

Arrazoizkoa dirudi orain duten lana hobetzeko edo bi lanak batera burutzeko beste lanpostu bat eskatzen duten pertsonak *Erregistratutako Langabeziaren* listetan ez sartzea. Era berean ulergarria izan daiteke jubilazioagatik pentsio bat jasotzen dutenak kanporatzea ere. Baina lanean ari ez diren eta lanpostu bat eskatzen duten beste pertsona ugari duela 20 urteko ministro-agindu baten ondorioz ez dira *erregistratutako langabeziaren* hileroko estatistiketan kontutan hartzen langabezian dauden pertsonen zenbatekoa, manipulaturik langabeziaren benetako datuak zuzitzeko helburu bakarrarekin.

Talde honetan daude 3 hilabete baino gutxiagoko epe baterako enplegu koiuntural bat eskatzen dutenak; hori benetan harrigarria da aldi baterako 4 kotratutik 3k baino gehiagok hiru hilabete baino gutxiagoko iraupena izanda.

Astean 20 ordu baino gutxiagoko lanaldia eskatzen duten pertsonak *erregistratutako langabezia* neurtzerakoan kontutan ez hartzeak ere ez du zentzu gehiegirik. Badirudi INEM-en ustez, lanaldi erdiaren behetik aldi partzialeko lana bilatzen duena “langabetu” izendatzea gehiegizkoa dela.

Hileroko estatistika honetatik desagertzen den beste talde bat 25 urte baino gutxiagoko ikasleena da; adin hori gainditu eta lehenengo lanpostuaren eskatzaile moduan izena ematen badute ere, ez dira langabetu kontsideratzen. Neurtzeko modu honen arabera, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministeritzaren ustez lan egitea eta ikastea erabat bateraezinak dira.

Egoera berean aurkitzen dira astean 20 ordu baino gehiagoko iraupena duten Lanbide Heziketa Okupazionalako ikastaroetara joaten direnak, mantenu bekak jasotzen dituztenak eta lehenengo enpleguaren eskatzaileak direnak. Lan mundura sartzeko gazteriak dituen zailtasun ugarietz gain, INEM-ek ez du modu serioan ulertzen lehenengo enpleguaren bilaketa.

Lan ezgaitasun iragankorra edo mediku bajaren moduko arrazoi justifikatu baten ondorioz lan eskari bat geldiarazten dutenak langabeziaren zerrendetatik ezabatzeke ere dudarik ez du izaten PSOE-ren gobernuak, langabeziaren kudeaketan “aurpegia zurtzeko” duen obsesioaren ondorioz. Baina horrek ez du esan nahi pertsona horien lanpostu bat aurkitzeko nahia desagertu denik.

Norbaitek Enplegu Zerbitzu Publikoen ustez bere ezaugarrien arabera “egokia” den lan eskaintza onartzen ez duenean ere berdina gertatzen da. Baina “egokia” den edo ez erabakitzerakoan ez dira kontutan hartzen lan bila dabilen pertsonaren interes profesionalak.

Azkenik, INEM-en langabezi listetan “beste arrazoiak” moduan jasotzen diren hainbat egoera ere ez dira agertzen. Adibidez, aukeraketa prozesu batean parte hartzeko izena eman dutenak, etxean edo atzerrian burutzeko lan bat eskatzen dutenak, EEE baten ondorioz kontratuak momentuz etenda dituzten langileak, lanean berehala ezin dutela hasi adierazten dutenak, ...

Esandako guztiaz gain, kontutan hartzen badugu langabetutako biztanlegoaren zati bat desanimatu egiten dela, eta lana aurkitzeko itxaropenik ez izateagatik INEM-en ez duela izena ematen, ondoriozta dezakegu *Erregistratutako Langabeziak* langabeziaren benetako tamainaren zati bat soilik adierazten duela.

Idazkaritza Ekonomikoa